



ORIOKO UDALA
ORIO (GIPUZKOA)

A K T A

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2002ko abenduaren 4a

LEKUA: Kultur etxeko bilkura aretoa

DEIALDIA: Lehena **HASIERA-ORDUA:** 19:10 **AMAIERA-ORDUA:** 19:52

BERTARATUAK:

Alkatea

Mirari Arruabarrena Elizalde

Zinegotziak

Ramon Etxeberria Aldaz, Eneko Olariaga Arruti, Eneko Dorronsoro Portularrume, Itziar Olariaga Larrañaga, Daniel Barrenetxea Sarasua, Jose Miguel Leunda Zubizarreta eta Eugenio Cotado Iturain.

Idazkari-Kontuhartzailea

Jon Carrera Jauregi

BERTARATU EZ DIRENAK: Andoni Sarasua Oriden eta Mari Jose Garate Etxeberria, herritik kanpo daudelako.

Aztergai zerrenda

- 1.- Onartzea, egoki bada, Udalbatzarrak 2002ko urriaren 29an egindako ohiko bilkurako akta eta 2002ko azaroaren 8an egindako ezohiko bilkurako akta.
- 2.- Onartzea, egoki bada, Orioko Udalak eta Aiako Udalak izenpetuko duten kolaborazio hitzarmena, eta ahalmena ematea alkateari hitzarmen hori izenpetzeko. Hitzarmena Karela udal kiroldegiko kirol zerbitzuen erabilerari eta finantzazioari buruzkoa da.
- 3.- Onartzea, egoki bada, Euskadiko administrazio lokaleko eta foraleko langileen 2002ko eta 2003ko lan baldintzak arautuko dituen akordio politikoa.



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

- 4.- Onartzea, egoki bada, Hondartzako txiringitoetako kontratu administratiboak bertan behera uzteko proposamena. Udalak, bere garaian, baimena eman zuen ostalaritza zerbitzuak emateko txiringito horietan eta kontratu administratiboak izenpetu zituen, txiringitoen kontzesio administratiboa kontratatzeko.
- 5.- Onartzea, egoki bada, Euskadiko RASD-ren lagunen elkartearen Gipuzkoako atalaren mozioa, Mendebaldeko Sahararen deskolonizazio prozesuaren atzerapenari buruz eta Saharako kanpamenduetako errefuxiatuen elikadura arazoei buruz.
- 6.- Arcachongo akordioa dela eta, dagozkion erabakiak hartzea, egoki bada, Orioko Udalak arrantza sektoreari, osotasunean, erakusten dion babesari buruz.
- 7.- Hainbat aldarrikapen onartzea, egoki bada, Europar Batasuneko arrantza politikaren aldaketari dagozkionak.
- 8.- Onartzea, egoki bada, Orioko Udaleko Batasunako zinegotziek aurkeztutako mozioa, autodeterminazio eskubideari buruz eta Garzon epailearen 2002ko urriaren 16ko autoaren aurka.

Esan-eginak

1.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAK 2002KO URRIAREN 29AN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA ETA 2002KO AZAROAREN 8AN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (8 baiezko boto):

ONARTZEA Udalbatzarrak 2002ko urriaren 29an egindako ohiko bilkurako akta eta 2002ko azaroaren 8an egindako ezohiko bilkurako akta.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAK ETA AIAKO UDALAK IZENPETUKO DUTEN KOLABORAZIO HITZARMENA, ETA AHALMENA EMATEA ALKATEARI HITZARMEN HORI IZENPETZEKO. HITZARMENA KARELA UDAL KIROLDEGIKO KIROL ZERBITZUEN ERABILERARI ETA FINANTZAZIOARI BURUZKOA DA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (8 baiezko boto):

1.- **ONARTZEA** Orioko Udalak eta Aiako Udalak izenpetuko duten kolaborazio hitzarmena. Hitzarmena Karela udal kiroldegiko kirol zerbitzuen erabilerari eta finantzazioari buruzkoa da. Hitzarmenaren testua euskaratu egingo da, eta euskarazkoa izenpetuko da.

2.- **AHALMENA EMATEA** alkateari hitzarmen hori izenpetzeko

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EUSKADIKO ADMINISTRAZIO LOKALEKO ETA FORALEKO LANGILEEN 2002KO ETA 2003KO LAN BALDINTZAK ARAUTUKO DITUEN AKORDIO POLITIKOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hazienda eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (8 baiezko boto):

ONARTZEA Euskadiko administrazio lokaleko eta foraleko langileen 2002ko eta 2003ko lan baldintzak arautuko dituen akordio politikoa. Akordio politiko horrek Euskadiko toki eta foru administrazioan gatazkak konpontzeko prozedurei buruzko akordio bat ere eransten du.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, HONDARTZAKO TXIRINGITOETAKO KONTRATU ADMINISTRATIBOAK BERTAN BEHERA UZTEKO PROPOSAMENA. UDALAK, BERE GARAIA, BAIMENA EMAN ZUEN OSTALARITZA ZERBITZUAK EMATEKO TXIRINGITO HORIETAN ETA KONTRATU ADMINISTRATIBOAK IZENPETU ZITUEN, TXIRINGITOEN KONTZESIO ADMINISTRATIBOA KONTRATATZEKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hazienda eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (8 baiezko boto):

1.- Estatu Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren diktamenaren **MENPE JARTZEA** Orioko Antillako hondartzako 1 eta 3 zenbakidun eraikinen okupaziorako kontzesio administratiboen kontratazioaren etendurari buruzko espedienteak. Kontzesioa



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuak emateko eman zitzaien, eta etendurako espedientearen arrazoa hau da: urtebete baino gehiagoz kanona ez ordaintzea.

2.- Estatu Kontseiluaren diktamena presazkoa dela **ADIERAZTEA**, apirilaren 22ko 3/1980 Lege Organikoaren 19. artikuluan ezarritakoaren arabera, zeren eta, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen kontratazio erregelamenduko 109.2 artikulua agintzen duenez, kontratu etendurako espedientei dagozkien nahitaezko tramite eta txosten guztiak presazkotzat joko baitira eta dagoen organoak lehentasuna eman beharko baitie.

3.- **BIDALTZEA** erabaki hau Estatu Kontseiluari, legez exijitu daitekeen dokumentazioarekin batera; horretarako, ondoko lege arauetan ezarritako bidea erabiliz: Estatu Kontseiluaren apirilaren 22ko 3/1980 Lege Organikoaren 23. artikulua eta Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariordetzaren egitura organikoa onartzen duen urriaren 31ko 463/1995 dekretuaren 6.5 artikulua.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EUSKADIKO RASD-REN LAGUNEN ELKARTEAREN GIPUZKOAKO ATALAREN MOZIOA, MENDEBALDEKO SAHARAREN DESKOLONIZAZIO PROZESUAREN ATZERAPENARI BURUZ ETA SAHARAKO KANPAMENTUETAKO ERREFUXIATUEN ELIKADURA ARAZOEI BURUZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Mozioak, hitzez hitz, honela dio:

Orioko Udaletxeko Udalbatzak Sahara Mendebaldeko deskolonizazio prozesuak behin eta berriz jasan behar dituen atzerapenen berri izanik eta Saharako Errefuxiatuen Kanpamenduetako jendearen elikagai baldintzak gaizkiagotu egin direla egiztaturik.

HONAKOA EMAN NAHI DU ADITZERA:

1.- Saharako Herriak autodeterminaziorako eta independentziarako eskubidea lortzeko eginiko bidezko borrokaren aldeko gure solidaritatea azaltzea berriz ere.

2.- Marokoko Erreinuak Mendebaldeko Saharako herrialdean, orain 27 urte baino gehiago hasi eta gaurdaino, militarki egin duen okupazio ilegala salatzea, baita okupaturiko herrialdeetan norbanakoaren eskubideen alorrean nahiz saharar herriaren eskubide kolektiboenean egin duen urraketa sistematikoa ere.

3.- Nazio Batuen Bake Plana eta 1997ko Houston-go akordioaren aldeko garela baieztatzea (gatazkako bi alderdiek onarturikoak eta nazioarteko erkidegoaren babesa dutenak); Saharako Herriak inongo presio militarretik, administratibotik



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

edo politikotik urruti, bere etorkizuna libreki eta demokratikoki erabaki dezan biderik egokiena dela irizten baitiogu.

4.- Nazio Batuen Erakundeari eta bereziki honen Idazkari Nagusi den Kofi Annan-i eta mandatarari den James Baker-i bake-prozesua desblokeatzeko neurriak har ditzaten eskatzea, saharar-marokoar gatazkari behin betiko irtenbidea emate aldera eta Magrebeko eskualdeak egonkortasuna berreskura dezan.

5.- Mendebaldeko Saharako gatazkari irtenbidea bilatzeko, Europako Batasuneko Erakundeek inplikazio handiagoa izan dezaten eskatzea, Marokori nazioarteko legeria betearaziz eta Giza Eskubideak errespetatu ditzan exijituz.

6.- Nazioarteko erakunde ezberdinei eta dohaintza-emaitza diren herrialdeei deialdia egitea, saharar herria Errefuxiatuen Kanpamenduetan jasaten ari den elikagai-krisi larria konpontzeko, fondo bereziak lehenbailehen libera ditzaten.

7.- Adostu du:

- Mozio hau igortzea ondoko erakundeei: NBEko Segurtasun Kontseiluaren presidenteari, NBEko idazkari nagusiari, Europar Legebiltzarreko presidenteari, Aljeriako presidenteari, Europar Batzordeko presidenteari, Espainiako presidenteari, Saharako Errepublikak Arabiar Demokratikoko presidenteari, Afrikar Batasuneko presidenteari, Afrikar Batasuneko idazkari nagusiari eta Marokoko erregeari (Bidali erabakiaren kopia NBEra eta EBeko eskumena duen organora)

- 687 euro zuzentzea, larritasun mailan, Tindoufeko kanpamenduetan errefuxiatu gizon-emakumeak pairatzen ari diren elikagai-krisi larriari heltzeko lehenbailehen, horretarako irekiriko kontu-korrontean.

- Erabakia argitara ematea ohizko bideak erabiliz (prentsa, udal bandoa, etab.)

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (8 baiezko boto):

ONARTZEA Euskadiko RASD-ren lagunen elkartearen Gipuzkoako atalaren mozioa, Mendebaldeko Sahararen deskolonizazio prozesuaren atzerapenari buruz eta Saharako kanpamentuetako errefuxiatuen elikadura arazoei buruz, goian jasota dagoen bezala.

19:33 orduak direla, Jose Miguel Leunda Zubizarretak Udalbatzarraren bilkura uzten du.



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

6.- ARCACHONGO AKORDIOA DELA ETA, DAGOZKION ERABAKIAK HARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAK ARRANTZA SEKTOREARI, OSOTASUNEAN, ERAKUSTEN DION BABESARI BURUZ.

Udalbatzarrek gaiaren berri jakiten du.

KONTUAN HARTUTA:

1.- Kantauri Itsasoko baxurako arrantza enplegua eta aberastasuna sortzeko oinarritzeko iturria da, bai eta bizitza ulertzeko modu bat ere Akordio honetan ordezkaturako kostaldeko udalerri guztietan; Kantauriko Kostaldean 5.000 familia baino gehiagori ematen dio lana; arrantza arduratsu eta jasangarria da, flota modernoduna. Izan ere, POP europarrek arrantza ahalmena murrizteko ezarritako eskakizunak aise bete ditu eta zorrotasun handiz errespetatzen ditu harrapaketatarako ezarritako gehienekoak (arrantza kuotak etab.).

2.- Azken 15 urteetan gure baxurako arrantzako ohiko arrantzagaietan (antxoak, hegazuak...) sartu diren Europako beste flota batzuek oso arrantza eredu intentsiboan oinarrituta garatu dute pixkanaka beren arrantza ahalmena (zortzi bider gehiagora handitu dute), beti ere legeria bete gabe (bolanten arautegi europarra, arrantza ahaleginari buruzko ICCAT arautegia, IFOPi buruzko arautegi europarra, Portugal eta Frantziaren arteko antxoak kuotaren trasbasea, esleitutako kuotak gainditzea...); flota horiek lehia handia egiten diote gure baxurako arrantzari eta, sarritan, berriro ere indarrean dagoen legeria bete gabe, ahalegina egiten dute gure flotak lurralde erkidean arrantzan egin ez dezan eta lehorreratu ez dadin, joan den udazkenean gertatu zen legez.

3.- Kantauriko Kostaldeko eta Kantauri Ipar-Mendebaldeko baxurako arrantzaren biziraupena eta etorkizuna kolokan daude, eta berarekin, baita geure etorkizuna eta kostaldeko erkidego gisa dugun aurrerakundea ere, Arcachongo Arrantza Akordioak berritzeko negoziazioetan.

AINTZAT HARTUTA:

1992ko Arcachongo Akordioek flota pelagikoaren neurritz kanpoko hazkundea eragin dute, eta hori itzelezko lehia da gure flotarentzat; izan ere, azken 10 urteotan unitate asko murriztu dira eta lehiatzeko gaitasuna galdu du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (7 baiezko boto):

1.- Gure babesa agertzea Kantauri Itsasoko baxurako arrantzari Arcachongo Akordio berri bat lortzeko ahaleginean, 1992koa baino orekatuagoa izan dadin eta gure flotak ordainean gehiago jaso dezan, oraindik hasiberri dagoen udazkeneko antxoak arrantza baldintzatu gabe.



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

2.- Gure poztasuna agertzea MAPAk oraintsu Asturiasko Erkidegoarekin, Kantabriako Erkidegoarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoarekin lortutako konpromisoagatik (joan den ostegunean, azaroak 21, Madrilen egindako batzarrean). Konpromisoa hauxe da: Arcachongo Akordioak Kantauriko kostaldekoek adostutako agirian oinarrituta eta batzar horretan erabakitako negoziazio printzipio berrietan oinarrituta negoziatzea Frantziarekin.

3.- MAPAri printzipio horiek onartzeko eskatzea eta sektoreari eta autonomia erkidegoei negoziazioan izan daitezkeen aurrerapenen berri emateko eskatzea.

4.- Espainiako Parlamentuari eta Eusko Legebiltzarrari gure baxurako arrantzaren alde honen moduko babes adierazpen bat egin dezaten eskatzea.

7.- HAINBAT ALDARRIKAPEN ONARTZEA, EGOKI BADA, EUROPAR BATASUNEN ARRANTZA POLITIKAREN ALDAKETARI DAGOZKIONAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Eudelek Europar Batasuneko arrantza politikaren aldaketari buruzko idatzi bat bidali dio Udalari 2002ko abenduaren 2an, hainbat aldarrikapen biltzen dituen. Idatziak, hitzez hitz, honela dio:

Reunidos en Málaga, el 12 diciembre de 2002, en relación a la Reforma de la Política Pesquera Común, las Comunidades Autónomas de XXX, los Ayuntamientos Pesqueros de XXX y las Federaciones de Cofradías de Pescadores de XXX.

DECLARAN

1º. Sobre la Propuesta de la Comisión Europea:

1º. 1. Coincidir plenamente con los objetivos generales enunciados por la Comisión Europea en su Propuesta de Reforma de la Política Pesquera Común. Resulta necesario adecuar la capacidad de la flota europea a los recursos pesqueros disponibles a largo plazo.

1º. 2. Rechazar con toda firmeza la propuesta de la CE que conlleva la eliminación de las ayudas estructurales para la modernización y renovación de la flota. Constituye una gran falacia el argumento pseudo-ecologista esgrimido en favor de la supresión de las ayudas.

1º. 3. Debería determinarse mediante fundamentos científicos la dimensión óptima de la flota europea para el ejercicio de una pesca sostenible y selectiva. Es necesario garantizar las políticas adecuadas para que esa flota sea moderna, competitiva y segura con arreglo a los exigentes requerimientos



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

internacionales en materia de riesgos laborales y condiciones de trabajo a bordo.

1º. 4. Ante una hipotética reducción de la nota europea por Estado Miembro, debería tomarse en consideración el esfuerzo realizado por la flota española en el pasado.

1º. 5. Valorar favorablemente las propuestas de la Comisión Europea de preservar la franja costera dentro de las 12 millas, respetando los derechos históricos ya establecidos. En el Mediterráneo esa franja costera debería ampliarse hasta las 24 millas.

1º. 6. Valorar favorablemente la creación de los Consejos Asesores Regionales de Gestión de Pesquerías, siempre que no se conviertan en instrumentos para la renacionalización de la política pesquera. Al contrario, deben propiciar el acercamiento de la toma de decisiones al sector pesquero y a las administraciones locales, a los estamentos científicos y al resto de agentes afectados.

1º. 7. Coincidir con la Comisión Europea en su propuesta encaminada a la armonización a nivel europeo de los regímenes de control, así como de la tipificación de las infracciones y de las sanciones en materia pesquera. A pesar del rechazo manifestado por la mayoría de los EEMM, que no quieren perder sus competencias actuales en esta materia, esa armonización es indispensable para la constitución de una verdadera Política Pesquera Europea.

1º. 8. Manifestar importantes reservas jurídicas a la viabilidad de la propuesta de Reforma aprobada por la Comisión Europea.

2º. Sobre la necesidad de impulsar una Pesca Europea Sostenible:

2º. 1. La nueva PPC debería crear un Código de Conducta para el ejercicio de una Pesca Europea Sostenible.

2º. 2. Este código debería establecer compromisos y pautas comunes de comportamiento. Su cumplimiento se podría ver recompensado con una Certificación Europea de Pesca Sostenible mientras que las infracciones mas graves acarrearían sanciones, como por ejemplo la pérdida de las ayudas, cuotas pesqueras, y/o reducción del esfuerzo, entre otras.

2º. 3. Una Pesca Sostenible es una pesca responsable, selectiva, segura, competitiva y que ofrezca plenas garantías sanitarias y de calidad. Sin embargo, en Europa existen casos flagrantes de pesca no sostenible (Ver Informe 1).

3º. Sobre la Pesca Responsable de las flotas españolas:



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

3°. 1. Las CCAA pesqueras abajo firmantes constituyen buenos ejemplos de una Pesca europea sostenible que se comprometen asimismo a profundizar en los principios de responsabilidad pesquera.

3°. 2. La mayor parte de las capturas que realiza la flota del estado español se realizan sobre recursos que se encuentran mayoritariamente en condiciones de sostenibilidad (Ver Informe 2). La participación de flota española en las capturas europeas es del 53% en las pesquerías subexplotadas, del 37% en las de plena explotación y de tan sólo el 5% en las pesquerías en situación de colapso. Además, en la flota española sólo el 14% de sus capturas corresponden a pesquerías en situaciones de riesgo, porcentaje que se eleva hasta 49% en el caso del resto de la flota europea (internacional).

3°. 3. La reducción considerable que ha realizado la flota del estado español se ha traducido de manera efectiva en una reducción significativa de las capturas.

4°. Sobre 13 Nueva PPC:

4°. 1. La Pesca europea debe ser ordenada y gestionada en base a la existencia de una Política Pesquera Activa. Así, deberá compatibilizar la sostenibilidad de los recursos pesqueros con el mantenimiento del tejido socioeconómico de las comunidades pesqueras.

4°. 2. Rechazamos, por tanto la reducción de la regulación de las pesquerías, así como el "laissez faire" en el ejercicio de la actividad pesquera, al ser incompatibles con los principios fundamentales de una Política Pesquera Activa.

4°. 3. En consecuencia, nos oponemos tanto a la intención de la Comisión Europea de suprimir la Política Europea de Estructuras Pesqueras como a las intenciones de otras partes de eliminar los instrumentos administrativos actuales y con el fin de dar carácter de exclusividad al mercado en la ordenación y gestión de las pesquerías europeas.

4°. 4. Lo mar sigue siendo una gran desconocida. Es imprescindible invertir más en investigación pesquera para mejorar el conocimiento sobre la evaluación y el comportamiento de las pesquerías. Las autoridades europeas deben integrar armoniosamente las recomendaciones científicas junto con los criterios socioeconómicos en la toma de decisiones sobre la gestión de las pesquerías.

4°. 5. Es imprescindible mantener el actual régimen de TACs y cuotas y exigir su estricto cumplimiento y respeto por parte de todas las flotas pelágicas europeas.



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

4°. 6. Abogamos por el mantenimiento del principio de estabilidad relativa, una vez que se corrijan los injustos desagrazos que supusieron las condiciones discriminatorias de la adhesión del Estado a la CE en relación con la flota de los 300.

4°. 7. Manifestamos nuestro rechazo a la creación de una flota única europea y defendemos la diferenciación de zonas y TACs actuales en las especies pelágicas.

5°. Sobre las políticas competencia del MAPA que inciden sobre la modernización de las flotas españolas:

5°. 1. La eliminación de las ayudas estructurales propuesta por la Comisión Europea echaría por tierra el empeño y el esfuerzo de las CCAA para completar sus procesos de modernización de las flotas pesqueras y tendría, en consecuencia, un efecto perverso sobre la flota española.

5°. 2. No menos perjudicial para culminar ese proceso de modernización sería que el MAPA aumentase sus exigencias de desguace en los supuestos de nuevas construcciones pesqueras.

5°. 3. Por todo ello, es preciso que el MAPA haga frente a la propuesta de la Comisión Europea con una mayor flexibilización de la normativa estatal de aportación de bajas que permita mejorar la seguridad y la habitabilidad de los nuevos barcos pesqueros utilizando el crédito de desguace acumulado en el pasado ante la mayor o menor posibilidad de la desaparición de las ayudas estructurales (conviene trabajar con la hipótesis de que dichas ayudas podrían desaparecer a más tardar el año 2007).

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (7 baiezko boto):

ONARTZEA goian aipatutako idatzian egiten diren aldarrikapenak, jasota dauden bezala.

8.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALEKO BATASUNAKO ZINEGOTZIEK AURKEZTUTAKO MOZIOA, AUTODETERMINAZIO ESKUBIDEARI BURUZ ETA GARZON EPAILEAREN 2002KO URRIAREN 16KO AUTOAREN AURKA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Mozioak, hitzez hitz, honela dio:



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

Nazio Batuen Erakundeak onartutako Eskubide Zibil eta Politikoen Itunaren 1. artikuluan agertzen da Autodeterminazio Eskubidea. Hain maila gorena duen eskubidea izan arren, bere aurkako adierazpen eta eraso ugari jasan behar izan dugu Euskal Herrian. Urrunago joan gabe, urriaren 16an Madrileko Audientzia Nazionaleko Instrukzioko 5. zenbakiko Epaitegi Zentraleko Garzon epaileak, 35/2002 sumarioaren barruan, kaleratutako auto berria hortxe daukagu. Epaille honek, —Espainiako Gobernuaren eta Espainiako hainbat komunikabide eta estamentu politiko, juridiko, sozial eta militarren babesarekin— traiektoria luzea du Euskal Herriaren eta euskal herritarren aurkako ebazpenak ematen eta inolako oinarri juridikorik ez duten autoak ateratzen.

Oraingo honetan, autoak duen intentzionalitate politiko nabariaz gain, Euskal Herriaren errealitate sozialari buruzko interpretazio zentzugabeak egiten ditu, nolabaiteko obsesio baten isla izan daitezkeenak. Honela, besteak beste, legean oinarriturik egiten diren "jaiotze berrien erregistro aldaketak" hauteskunde erroldaren manipulaziotzat jotzen du; nazioarteko zuzenbideak definitzen eta arautzen duen autodeterminazio eskubideari buruzko burutazio eta asmakizun izugarriak planteatzen ditu, berez eskubidea dena delitu bihurtu arte; Batasuna erakunde politikoaren lan ildoari buruzko interpretazio subjektibo eta bitxiak egiten ditu; kargu publikoen balizko ordezkapenei buruz mintzatzen da; hauteskundeetako emaitzak nazien garaiko Alemanian gertatutakoaz parekatzen ditu...

Finean, Garzonek bere marka guztiak hautsi egin ditu eta, auto berri honekin, Espainiako justizia sistemaren benetako aurpegia erakusten digu: Gobernuak dituen beharrizan politikoen menpekoea eta interes politikoen araberrakoa.

Oraingoa, ordea, ez da epaile honen jokaera kuestionatua izaten den lehendabiziko aldia. Izan ere, begi bistakoa da epaile honek hartzen dituen erabaki gehienek duten oinarri eta fundamentu juridiko falta, bai eta Estatuko Gobernuak duen interes politikoekiko erabateko atxikimendua. Gasteizko Gobernuak behin baino gehiagotan adierazi du epaile honek prebrikazio-delitu egin duela bere ebazpenekin eta beraren aurkako kereila aurkeztu du Espainiako Epaitegi Gorenaren aurrean; kereila honetan, besteak beste, segurtasun-falta juridikoa sortaraztea leporatzen dio epaile honi, bai eta oinarritzko eskubide batzuen urraketarako neurriak hartzea.

Hau guztia dela eta, honako erabakiak hartzea proposatzen da:

1.- Udal honek Nazio Batuen Erakundeak onartutako Eskubide Zibil eta politikoen Itunaren 1.artikuluan agertzen den Autodeterminazio Eskubidea berretsi eta bere aldeko defentsa irmoa egingo duela aldarrikatzen du.

2.- Udal honek erabateko desadostasuna adierazten du, Garzon Epaillearen 2002ko urriaren 16ko autoaren aurrean. Epailleak Euskal Herriko errealitateaz egiten duen kontaketa zeharo faltsua da eta euskal herritarrentzako iraingarria.



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

Gainera, epailearen jarrerak eta autoaren edukiak Euskal Herriko bizitza politikoan onartu ezinezko hamaikagarren esku-hartzea suposatzen dute. Batetik, autoak inolako oinarri juridikorik ez duelako, eta bestetik, lehendabizi akusazioak egiten direlako eta, ondoren, akusazioak mantentzeko frogak eskatzen direlako. Akusazioa aldeztu aurretik egiten da, frogetan eta irizpide objektiboetan oinarritu gabe.

3.- Udal honek Garzonen auto berri honetan ematen den Autodeterminazio Eskubidearen kriminalizazio saioa salatu egiten du. Honen helburua nazioarteko zuzenbideak jasotzen duen funtsezko eskubide honen balizko gauzapenerako oztopoak jartzea da, epaile bati ez dagozkion funtzio eta balorazio politikoetan sartuz.

4.- Udal honetatik berretsi egiten dugu proiektu politiko guztiak zilegiak direla eta, beraz, bere defentsa eta gauzapenerako aukera berdinak izan behar dituztela.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (7 baiezko boto):

ONARTZEA Orioko Udaleko Batasunako zinegotziek aurkeztutako mozioa, autodeterminazio eskubideari buruz eta Garzon epailearen 2002ko urriaren 16ko autoaren aurka, goian jasota dagoen bezala.

Horrenbestez, bilkurari amaiera ematen zaio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, Idazkaria naizenez, akta hau egiten dut Alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA

IDAZKARIA,